



1. MURAL ROMUALDA ZULOAGA ARTETXE: ZAPIA BURUAN ETA IBILI MUNDUAN

Horma-irudian, Romualda Zuloaga Artetxe panderojoleari egiten zaio omenaldia, emakumeek kulturaren, historian, garapenean, tokiko nortasunaren sendotasunean eta euskararen zein euskal musikaren igorpenean egindako ekarpenaren adierazgarri.

“Zapia buruan eta ibili munduan” izenburua “Txapela buruan eta ibili munduan” esaera zaharretik dator. Kasu honetan, edonora joanda ere, emakumeen sustraiei eutsi behar zaiela adierazi nahi du. Horma-irudian, manta handia irteten da panderotik, eta Romualda bera inguratzen du. Bere gainean, zenbait emakume ari dira dantzan. Panderojoleak hasitako bidearen eta Erabideko kideek sarean egindako lanaren erakusgarri da, hain zuzen ere.

Artelana Erabideko emakumeen talde batek Galdakaoko inguruneari buruz egindako prestakuntzaren, hausnarketaren eta azterketaren ondorioz sortu zen. Bertan, hain zuzen ere, osasun komunitarioa eta ongizatea sorrarazten dituzten eremuak, baliabideak zein zerbitzuak izan zituzten hizpide. Eremu publikoan emakumeak ordezkatzeko dituzten sinbolo gutxi daudenez, EMAKUMEEN oroimen historikoa berrerratu beharra dago, erkidegoan bertan osasuna sortzeko.

2024ko azaroaren 23an, Tximelarre kaleko 29an kokatutako horma-irudia irekitzeko jaia egin zen. ‘Artibismoko’ edo eduki sozialeko arteko ekintza izan zen, eta Aktibatuz proiektuaren barruan garatu zen. Eusko Jaurlaritzak eta Lankidetzarako Euskal Agentziak finantzatu dute proiektua, eta Farmamundi Euskadi GKEk dinamizatu du. Bertan, Erabide Emakume Elkarteak eta Hibernando Taldeko artistek diseinuan parte hartu dute, eta Galdakaoko Udalaren laguntza ere jaso du.

Bazenekien...

Bizkaiko Foru Aldundiak 2022an egindako azterlanaren arabera kaleen %4,6k baino ez daramatela emakume-izena?



AKTIBATUZ: BIZIAREN, OSASUNAREN ETA EMAKUMEEN OROIMENAREN IBILBIDEAK

EMAKUMEEN OROIMENAREN IBILBIDEA

MI(cro)RELATO

Marzo con 'm' de mujer

Soplaba el viento de marzo, ese que hace bailar el agua. Ese que acerca la música a quien escucha con el alma. Cabalgaban notas prohibidas entre calles y gruesas paredes, liberando irrintzis oprimidos que torturaban las gargantas.

Sopla el viento de marzo. Así susurra la nostalgia. Así resuena el sonido de la pandereta entre las manos de Romualda.

Mari Cruz Cuesta Susmozas